



OINARRIZKO EKINTZAK

Enpresa honen helburu edo ekintza nagusia gel banagailuak egitea, banagailu hauekin gure gaur egungo pandemiaren kutsadura kasuak jeistea izango dugu helburu, produktu hau leku publikoetan jarriz.

Espero dugun moduan Covid-19 a amaitzen denean, gure enpresak aurrera jarraitu behar du bere produktua bezeroei salduz. Horregatik gure produktu honi bi erabilpen eman behar dizkiogu, horregaitik, ketchup eta mahonesa isurtzeko erabilpena izango du gure produktu honek aldaketa batzuk eginda bere diseinuan.

Eskuetara edo janariari isuri behar diogun likido hori botatzeko, gure oinarekin palanka bat zapaltzea naikoa izango da gure oinarekin. Palanka honen bitartez likido hori atera dadin elementu mugikor bat behar dugu eta hau beste enpresa bati erosiko diogu. Honen mekanismoa guk geuk egitea baino merkeagoa aterako litzaigukeelako beste enpresa bati erosita.

Gure produkzioa martxan jartzeko, aluminioa erosiko diogu beste enpresa bati. Gure enpresara materiala iristen denean, guk hau mekanizatu egingo dugu behar dugun neurrietara eta ondoren txapak plegatuz edo hauek moztuta, elkarrekin lotuko ditugu torloju edo soldaduraren bidez gure produktua osatzen joateko. Ondoren gure produktuari pintura kapa bat emango diogu eta pintura kolore hau bezeroak aukeratzeko aukera izango du, guk jarritako aukera batzuen artean. Azkenik gure produktuari agerian geratzen den lekuan, enpresaren izena bere logoarekin jarriko diogu.

Banagailu bat eraiki edo fabrikatu ahal izateko zenbat material behar dugun jakin behar dugu. Altueran metro bat izango du eta gainerako aldeak 30cm.

Ekarri beharreko materiala: 4000mmx120mm-ko txapak.

Erosten dugun materialarekin ahal dugun kantitate gehien egin behar ditugu, horrela materialaren garraio kostua gutxiagotuko genuke.

Material kantitate honekin 4 banagailu egin ditzakegu.



Materiala ala ere kantitate hori baino gehiago eskatuko dugu, horrela edozein ezustekoren aurrean gure produktuak fabrikatzen jarraitzeko.

Mekanizazio orduan ere akatsenbat egiten badugu materiala behar baino gehiago edukiko dugu berriro mekanizatu ahal izateko.